

SAVIT4. Bazterkeria egoeran dauden eta etxebizitza duten pertsoneri bizitza independentean laguntzeko zerbitzu pilotua



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

SAVIT4. Bazterketa egoeran dauden eta etxebizitza duten pertsoneri bizitza independentean laguntzeko zerbitzu pilotua

Proiektu pilotu bat da, eta helburu hau du: «... etxean eguneko arreta emateko eta bizitza independentean laguntzeko zerbitzua izatea, inklusio premiei erantzute aldera, Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte bazterketako egoeran dauden eta kronikotasun indize handia duten emakume eta gizonen banakako arreta soziosanitarioan espezializatua...». Proiektuak laguntzeko eta zuzeneko arreta emateko eremu bat eskaintzen du, gizarte inklusioa lortzeko bideratua, balio anitzekoa eta luzaroan irautekoa. Horren bidez, hauxe sustatzen da: pertsonak, batez ere adinekoak, beren ohiko ingurunetik ez banantzea, banakako laguntza humanoa eta hurbila jasotzea euren gizarteratze ibilbidean, hezkuntzako, laguntzako eta inklusio komunitarioa sustatzeko esku hartzeak uztartuz, bai pertsonen etxebizitzan eta/edo komunitatean bertan zein ingurune irekian, bai modu indibidualizatuan zein familian eta/edo bizikidetzan inguruneetan.

Gainera, ahalik eta autonomiarik handiena eman nahi zaio isolamenduagatik, adinagatik eta/edo bakardadeagatik baztertuta dagoen edo egoteko arriskuan dagoen pertsonari (sortutako konfiantzan oinarrituta). Horretarako, haren bizi kalitatearen alderdiak hobetzen dira ohiko etxebizitzan —hala nola ongizate materiala, fisikoa, psikologikoa, eskubideen garapena, autodeterminazioa, garapen pertsonala eta autoerrealizazioa—, eta sorlekuan gizarteratzeko aktibazio bat sustatzen da.

Arreta guneez malgua da, hurbiltasunekoa, segurua, laguntza intentsitate txikikoa eta eskakizun ertain/txikikoa. Halaber, laguntza ematen zaie bizitza independentea (bakarrik edo, babesgabetasun larriko egoeran, familia guneean) duten emakumeei eta gizonei, pertsona hauek barne hartuta: genero indarkeriako egoerei aurre egiten dietenak, gizarte eta hezkuntza arloko laguntza eta esku hartzea behar dituztenak eta/edo, dagokionean, osasun prestazioren bat behar dutenak (atxikimenduaren sustapena, laguntzak, terapia espezializatua...) eta/edo laguntza psikologikoa behar dutenak, erakundearen berezko zerbitzuetara bideratuta.

Erabiltzaile bakoitzaren banakako programazioan zehazten diren ekintzak garatzen ditu programak, eta banakako, taldeko, familiako eta komunitateko esku hartzeak antolatzen ditu, esku hartzeko eremu batean baino gehiagotan batera egin daitezkeenak, gehienez ere astean

bitan bi orduko saioetan, pertsona bakoitzarekin. Esku hartze horiek zuzenean koordinatu eta gauzatuko ditu laguntzaile pertsonal batek. Esku hartzeko eta laguntzeko taldeko kide bakoitzak laguntza pertsonalaren ikuspegitik jarduten du, baina bere ezagutzaz eta esperientzia profesionalaz baliatuta; besteak beste, psikopedagogian, gizarte hezkuntzan, animazio soziokulturalean, gizarteratzean eta laguntza soziosanitarioko zereginetan ditu ezagutza eta jakintza praktikoa.

Aipatutako arlo horietako premiei erantzuteko egingo da deribazioa, bazterketaren seinaleak arintzen laguntzen duten zereginekin zerikusia duten premiei, hain zuzen. 1. eta/edo 2. irizpideen arabeko seinaleez ari gara, bazterketa balioesteko erabilitako tresnaren arabera.

Programa honen xede den premia nagusia honekin lotuta dago: bizitza independenteari arreta emateko programa berritzaileak sortzearekin, pertsona bere bizitegi eremuan gizarteratzeko aktibazioa sustatuko duten laguntza eta euskarri jarduerak gauzatzearekin, eta bazterketa egoeran egoteagatik —askotan aitortu gabeko mendekotasuna edo zahartze goiztiarraren sintomak izateagatik— deskribatutako arreta zerbitzu espezializatuak eskura ez dituzten biztanleria taldeen zailtasunak eta beharrak ezagutzera ematearekin.

Ez dago herritar horientzat horrelako eredurik edo programarik, enpatian, gizatasunean, segurtasunaren sustapenean, konfiantzan eta duintasunaren berreskurapenean oinarritutakorik, ez etxez etxeko arretako paketeen formatuan antolatutakorik, ez inklusioaren eremuan administrazioarekin edo programaren xede diren herritarrekin zuzenean koordinatuta kudeatutakorik.

Programa honetan, aktibazio inklusiboaren aurrean ahaldundu eta bere gaitasunak eta jarrera hobetu nahi dituen pertsonak berak kontrolatutako eta zuzendutako laguntzat hartzen da laguntza pertsonala; alegia, hark nahi duena hobetzea da gure xedea, haren plan, ideia, ekintza eta nahiak aintzat hartuta. Horrenbestez, pertsonak bere eremuan —etxebizitza, bizitza garatzen duen lekua...— proposatzen dituen ekintzetan laguntzen du laguntzaile pertsonalak. Beraz, edozein zeregin egin dezake laguntzaileak pertsonaren egoeraren arabera, baldin eta horretarako kualifikatuta badago. Zeregin pertsonalak, etxeakoak, laguntzekoak, komunikaziokoak, koordinaziokoak eta, krisi garaietan, salbuespenezkoak izan daitezke, besteak beste, betiere ez badute urratzen bi alderdien eskubiderik edo betebeharririk, ez lanekorik, ez oro har humanitate arlokorik. Zeregin horiek kontratu batean jasotzen dira. Hori dela eta, programa honetako laguntzak ez du antzik esku hartze sozialeko eta/edo sozioedukatiboko taldeen euskarri ereduarekin, ez eta diziplinarteko koordinazioan jarduten duten profesional mediko eta/edo sanitarioen laguntzarekin ere. Bestalde, ez da aisialdi denboran laguntzeko programa bat, ezta arreta plan indibidualizatu baten ikuskapena ere.

Hortaz, programa honek estali nahi dituen premiak askotarikoak dira, eta, aldi berean, zehazten zailak baina ulertzen eta, zenbaitetan, gauzatzen errazak; gehienetan, ezinbestekoak dira harreman komunitarioak.

Xede egoera: gizarte isolamenduak eragindako zahartze goiztiarra.

Gaur egun, inklusioaren alorrean, ez dago laguntzaile pertsonalaren figura edo arreta eredu eskaintzen duen bulegorik edo zerbitzurik, lehen eta bigarren mailako arretaren arteko programa giltzarririk, bazterketa egoeran, bazterketako arriskuan eta/edo gizarte isolamenduan egoteagatik gizarte isolamendua jasaten duen kolektibo horrentzat. Bazterketa egoeran dauden pertsonen laguntzeko figura hori ez da oraingoz aintzat hartu Bizkaiko eremu geografikoan.

Autonomia handitzen eta bizi proiektuak garatzen laguntzeko eredu (modu) bat da, eta ekintza terapeutikoeekin edo errehabilitazio ekintzekin batera jardun dezake. Eredu honetan, jarduketaren ardatza ez da partekatuta egindako arreta indibidualizatuko plan bat; horren ordez, indartu egiten ditu pertsonak berak programara iristean dituen konpromisoak, bere ohiko bizitzaren parte direnak. Hau da, erabiltzailea ahalduz eredu bat da, eskaintzen zaion zerbitzu prozesu osoan laguntza kolaboratiboa, kosortzailea, pertsonalizatua, humanista eta integratzailea emateko tresna bat. Prozesuan, prestazioak aukeratu behar dira, eta nola eta zer ordutegitan garatuko diren erabaki, pertsona gustura dagoen ala ez jakiteko balioko duten ebaluazio adierazleak zehaztu eta zerbitzua zenbatean behin emango den erabaki, baita prestazioak nola konbinatuko diren, nola garatuko diren eta non egingo diren ere.

Artatutako pertsonen nola bizi nahi duten errespetatu nahi da une oro, eta jasotzen dituzten zerbitzuetan, haietan hartzen diren erabakietan —haiek hartzen dituzte erabakiak— eta beren ustez onenak diren jarduerak aukeratzeko prozesuan parte har dezaten, edo, bestela, gatazka sortzen duten eta beren bizi eremutik ateratzera behartzen dituzten jardueretan esku har dezaten. Langileen eskubideak kontratu batean ezarrita eta araututa daude alde aurretik, eta, beraz, pertsona bat baino gehiago artatu ahal izango dituzte aldi berean, adierazitako formatuan; hots, gehienez ere bi orduz, astean bi egunetan.

1. Erakunde sustatzaileak

T4 Elkarteak

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Balorazioen arabera bazterketa egoeran edo bazterketako arrisku larrian dauden pertsonak edo oinarrizko gizarte zerbitzuek etxeko arreta zerbitzuko laguntza osagarria bideratutakoak, arreta hori behar bestekoa ez dela eta babesgabetasun egoera sortzen duela uste bada. Udalak eta/edo Aldundiak eta T4 Elkarteak osatutako lantalde misto batek ezarri eta berrikusi behar ditu horiek, aldizkako bileretan.

Proiektuak Bizkaiko eremu geografikoko 15 etxe unitatetan artatzen du, urte oso batean. Plaza kopurua Sestaoko udalerririk betetzen badu —han ezarriko da programa pilotu hau—, beste administrazio batzuekin batera aztertu ahal izango da kopuru hori handitzea, horrelako programa batean langileei dagokienez dauden beharrak kontuan hartuta.

4. Lurralde eremua

Bizkaia

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Laguntza, zaintza, duintasuna, zahartzea, kalitateko bizitza independentea, lotura, parte hartzea, ahalduntzea, eredu komunitarioa, garapen pertsonala.

7. Helburuak

Programaren helburu nagusia bizi kalitatea eta itxaropena hobetzea da, pertsonak bizitza autonomoago eta independenteago batera egokitzea sustatuz, bizitza garatzen duten guneetan harreman, hezkuntza eta laguntza jarduerak eginez, narriadura handiagoa izateko arriskua arinduz eta ingurumen gaitasuna hobetuz; izan ere, bizitza independentea duten emakumeei eta gizonei ematen zaie laguntza. Bizilekua duten pertsonen autonomia pertsonala sustatu nahi da, bizilekua galtzeko arriskua duten pertsonak aktibatu, benetako inklusio aktiboa izan dezaten, eta emantzipazioko eta bizitza independenteko prozesuak babestu, aurrez finkatutako ibilbide pertsonalizatuak alde batera utzita.

Orokorrak

1. Bazterketa egoeran dauden, bizilekua duten baina eguneroko bizitzako zenbait alderditan zailtasunak dituzten emakumeen eta gizonen autonomia pertsonala eta inklusioa sustatzea.
2. Administrazioak behar bezala edo batere babesten ez dituen pertsonen laguntzea bizitegi ingurunean, bai eta, behar izanez gero inklusio sozialeko prozesuetan ere.
3. Emantzipazioko eta bizitza independenteko prozesuetan esku hartzea eta laguntzea, edo bizikidetzako esparru propio, familiar edo independente batean garatzen direnak hobetzea, hezkuntzaren arloan eta eguneroko zereginetan lagunduz.

Espezifikoak

1. Erabiltzaileen autonomia pertsonala mantentzea eta/edo sustatzea.
2. Erabiltzaileen garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta bizi esperientzia positiboak sustatzea.
3. Ingurune komunitarioan integratzeko eta parte hartzeko eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko aukerak ematea, eta inguruko kultura, gizarte eta jolas jardueretan parte har dadin sustatzea.
4. Familia, komunitate, gizarte eta laguntza sareak sustatzea eta indartzea.
5. Erabiltzaileei beren etxebizitzan edo etxebizitza egonkor batean bizitzea ahalbidetzea, laguntza emanez.
6. Ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera egokiak sustatzea eta/edo garatzea, norberaren bizitegi esparruan ahalik eta modurik autonomoenean bizitzeko beharrezkoak diren gaitasunak indartze aldera.
7. Egoera familiar konplexuetan bitarteko izatea, guraso, familia eta/edo bizikidetzak eginkizunak eta erantzukizunak zuzen bete daitezela sustatuz.
8. Bizikidetzak eta komunitate testuingurua gehiago honda dadin prebenitzea, portaera desegokiak edo krisi egoerak geldiaraziz eta haiei helduz.
9. Etorkizunean erantzukizuna eta ondorioak —pertsonalak eta hurbileko bizitegi ingurunean— onartzea ekarriko duten hautaketak ahalbidetzea.

8. Metodologia

Ekintzak eta interakzioak, pertsonen etxean edo bizikidetza nukleoan ez ezik, beste esparru batzuetan ere gauza daitezke. Horri dagokionez, ikuspegi komunitarioa ere har daiteke kontuan aisiaren eta denbora librearen tratamenduan, komunitateko, auzoko eta hiriko guneak erabiltzea sustatzen baitu. Gainera, ospitalera joan behar dutenean edo beste kudeaketa batzuetan laguntzea ere ahalbidetzen du.

Ebaluazio eta balorazio sistema jarraitua da, eta programa dinamiko eta egokitua, halako moldez non pertsonak intentsitate desberdineko hainbat prestazio jaso ditzakeen, betiere zer bizi unetan dagoen edo zer-nolako laguntza —eskaerari edo intentsitateari dagokionez— behar duen kontuan hartuta. Haren egoera pertsonalera gehien egokitzen den jarduera sorta antolatuko da. Teknikari espezializatuek diagnostikatu, ebaluatu eta egiaztatuko dute egoera hori, baliabide egokiak erabilia, zerbitzua eskatzen duten udaletako, Bizkaiko Foru Aldundiko, beste erakunde batzuetako, eskualdeko osasun zerbitzuetako eta abarretako erreferentziazko profesionalekin koordinatuta.

Datu guztiak elkarrearen aplikazio informatiko batean erregistratzen dira. Aplikazio horrek aukera ematen du datuak etengabe ustiatu eta berrikusteko, bai eta PowerBi sisteman irakurri eta aztertzeko ere. Formatu hori administrazioarekin parteka daiteke, T4 Elkarreak eta Bilboko Udalak gazteekin egindako prebentzioko eta sexualitate osasungarriko programan bezala.

9. Alderdi berritzaileak

Programa honek bizitza independenteko ereduen jardunbide egokiei jarraitzen die. Eredu horiek desgaitasunaren eta mendetasunaren alorretan aplikatu dira orain arte, baina ez dira inoiz aplikatu bazterketako egoeran edo bazterketako arrisku egoeran dauden pertsonen zuzendutako programetan. Programan zenbait neurri antolatuta dira, pertsonak modu aktiboan parte har dezan, bai jasotzen duen zerbitzu paketearen diseinuan, bai hura garatzeko moduan. Lehen mailako arretako etxeko laguntza zerbitzu baten edo desgaitasun/mendetasun zerbitzu baten formatuaren zenbait alderditan oinarrituta, hasiera batean esperientzia aitzindaria izan nahi du inklusio sozialaren arloan. Urtebeteko iraupena izango du, eta proba pilotua izango da, kolektibo horren errealitatea erregistratu eta aztertzeko, oinarri sozialen, gizarte hezkuntzako esku hartzeko taldeen eta T4 Elkarrearen beraren laguntzari eta diziplinarteko lanari esker, hain zuzen ere erabiltzailea ahaldunduta eta eskaintako zerbitzuaren kontratazioan ekimena izan dezan sustatuta.

Arreta eredu hori —inklusioko bigarren mailako esku hartzean espezializatutako etxeko arreta zerbitzuak ezartzen eta garatzen duena— bizi kalitatearen hobekuntzan eta bizimodu independentearen ereduaren oinarritzen da. Aktibazioa, eskubideak, generoa eta arriskuen eta kalteen murrizketa dira haren ikuspegiak, eta inklusioko aktibazio paradigma hau du: prozesuetan aktibazioaren ardatza inklusio soziala da, askotariko modalitateen esparru batean ulertuta, eta modalitate horietan enplegarritasuna desiragarritzat hartzen da, baina ez berezko helburutzat. Ereduaren eta erakundearen beraren misioa, ikuspegia eta balioak zuzenean lotuta

daude eraginkortasuna afektibitatearekin, loturarekin eta harremanen garapenarekin uztartzen dituzten ereduen filosofiarekin.

Programa, berez, zaintzeko, arintzeko eta sendatzeko modu bat da, eta pertsonaren duintasuna berreskuratzen saiatzen da, onberatasun, enpatia eta konfiantza apur batekin, bere esku hartzeak zorrotasunean, etikan eta erantzukizun profesionalean oinarrituta.

Gaitasunean oinarritutako esku hartze pragmatikoa komunitatean

Laguntza harremanak, banakako arretak eta gizon eta emakumeekiko esku hartzearen egokitzapen espezifikoak efektu prebentibo, tolerante eta asistentziaren aldetik kalitatekoa dute komunitatean, eta askotariko erantzun malgu eta berritzaileak eragiten dituzte. Egiten den esku hartzea pragmatikoa da, konpetentziala, bizi kalitatera bideratua —arriskuak eta kalteak murrizten ditu, beraz—, humanista eta erlazionala.

Esku hartzeak ingurunearekin elkarlanean jardun nahi du, komunitarioa, ikerketazkoa eta errespetuzkoa izan nahi du, eta aukera berriak sortu nahi ditu, luzaroan iraun dezakeen eta BFAko erreferentziazko profesionalekin eta ingurune komunitarioarekin erabat koordinatuta egon daitekeen loturaren bidez.

Arreta zerbitzu horrek etxez etxeko laguntza zerbitzuaren estaldura osatzen du edo laguntza pertsonalizatzen du. Laguntza pertsonalizatuaren kasuan, alderdi pertsonaletan eta harremanetan independentziaz eta autonomiaz jokatzeko sustatzen du, eta pertsonari bere bizitzarako aukeratzen dituen eguneroko jarduerak egiten laguntzen dio. Hortaz, hautatzeko eta ahalduntzeko aukera ematen die pertsona horiei, orain arte ez bezala.

Esku hartzeko eredia bereizten duten elementuak: balio publiko partekatua sortuz.

- Ereduak egokitzea eta etengabe hobetzea.
- Etengabeko hobekuntza eta gizarte erantzukizuna.
- Zaintza pertsonalizatuak.
- Herritarren eta erabiltzaileen ahalduntzea.
- Normalizazioa.
- Sistemaren birbideratzea, sistemak bateratzeko: oinarrizko gizarte zerbitzuen, T4 Elkarteen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lana.
- Asistentziaren kalitatea. Balio publikoa.
- Laguntza programen arteko trantsizioa.
- Berrikuntza.
- Zaintza gaineko prestakuntza, kudeaketa eta koordinazioa.